

07.

IV. PLANAREN KUDEAKETARAKO EGITURA

Koordinaketa eta Programaketa

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua jasotzen duenaren arabera tokiko administrazioek, euren eskumenen esparruan, egiturak egokitu behar dituzte, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzeaz, programatzeaz, ebaluatzeaz eta horiei buruz aholkatzeaz arduratuko den unitate administratibo bat egon dadin.

Plan honen helburuak lortu eta ekintzak aurrera eramateko, beharrezkoa da, jarraipen eta ebaluaketa bultzada egitura edukitzea. Bultza egitura hau Gizarte Ongizate, hezkuntza eta gazteria sailaren baitan kokatua egongo da eta lau pertsona izango ditu arduradun: Ongizate sozialeko politika arduradun bat, arlo zuzendaria, esku-hartze komunitarioko arduraduna eta berdintasun teknikaria (publizitate eta harreman publikoetan lizentziatua, berdintasun eta genero inpaktuaren ebaluazioan unibertsitate espezialista eta lanaldi osoko jorndan).

Berdintasunerako sail-arteko batzordea

Batzorde hau 2014. Urtean sortu zen Berdintasun III Plana garatu bitartean eta departamentu bakoitzeko ordezkari batez osatua dago. Udaletxeko berdintasun politiken zeharkakotasuna ziurtatzeko oinarrizko parte hartze erreminta bezala sortu zen. Sail-arteko batzorde hau izango da barne ekintzen priorizazio, betearazte eta ebaluazioaz arduratuko dena. Gaur egun 7 eremu hartzen dute parte honen baitan: Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria; Euskara, Kultura eta Kirola; Mugikortasuna, Bide Publikoa eta Herri-lanak; Hirigintza eta Ingurumena; Hazienda, Sustapen Ekonomikoa eta Plan estrategikoa. Nahi dena da, sail guztiak batzordearen baitan ordezkaritza izan dezaten eta aldizkako erabaki mahaia bihurtzea. sail-arteko batzordearen funtzioak:

- Barne Planaren markopean burutzen diren ekintza guztien bultzatze eta koordinaketa lanak, plana koherentzia har dezan.
- Helburu eta denboren jarraipena osatzea.
- Neurri zuzentzaileak proposatu eta hauen martxa jartzea baloratu.

- Planaren komunikazioa burutu.

Berdintasun batzordea

Berdintasun batzordea Plana aurrera eramatearen ardura duten pertsonal teknikoaren eta berdintasun zinegotziaren ardurapean dago. Batzorde hau hiritarren parte hartze organo bezala itxuratua dago. Bertan aldizka, elkarte, politikari, hezkuntza zentro eta bestelako erakunde sozialak batzen dira.

Organo honen funtzioak dira:

- Berdintasun Planaren jarraipena osatu eta ekarpenak egin.

Aurrekontua

Berdintasunerako plan honek 540.500 euroko kontua du, urtero onodrengo zenbatekoak erabiliko dira:

2017:	73.600,00€
2018:	123.600,00€
2019:	117.100,00€
2020:	111.600,00€
2021:	114.600,00€